

JAKINTZA IKASTOLA IKASTETXE PUBLIKOKO ORGANO GORENAREN AGERRALDIA/ADIERAZPENA

Dakizuenek, ekainetik Jakintza Ikastolako Erregezain kaleko eraikinean estaldura berria egiteko obrak ditugu, eta obra horien ondorioz eragindako kalteeak handiak izan dira.

Obren arduradun nagusia Donostiako Udala da, Udalak esleitu baitzuen obra egiteko kontratua, eta finantzazioa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarena (%60) eta Udalarena (%40) izan da.

Aurreikusi gabeko bi faktore izan dira obran:

- Ikastolako patioaren erdi-erdian garabi-dorrea jartzea
- Abuztuko hainbat egunetako euriaren ondorioz eraikinean ura sartzea

Bi faktore horien eraginez, Jakintza Ikastolaren Organo Gorenak erabakiak hartu behar izan ditu ikasturtea hasteari buruz, eta gaurko agerraldian abuztuaren hasieratik gaur arte gertatutakoaren gaineko irakurketa plazaratu nahi dugu.

Argitu behar da abuztuaren 5ean jada ura sartu zela eraikinean, kalte handiak eraginez, baina kalte horiek ez ziren jakinarazi abuztuaren 11 arte, bigarrenaz euria sartu zen arte. Ondoren, abuztuaren 22an berriz ere kalteak izan ziren, eta, alarma guztiak jota zeudenean ere, abuztuaren 28an berriz ere urak kalteak sortu zituen, oraindik ere beharrezko neurriak hartu gabe zeudelako. Kalteak beraz areagotu egin dira abuztuaren bukaerako euriteekin, baina hauek ez dira bakarrik izan nonbaiten irakurri izan dugun moduan

Ondorioz, egoera zein zen ikusita, Jakintza Ikastolako Organo Gorenak Hezkuntza sailak aholkatuta, ikasturtea irailaren 14an hastea eta urria arte ordutegi murriztuarekin (goizez bakarrik) egitea erabaki zuen. Neurri gogorrek eta familia eta Jakintza osatzen dugun komunitate osoari asko eragiten diotenak, baina, Udalak eta Jaurlaritzak ziurtatu egin behar du eraikinak segurtasun eta higiene neurri egokiak dituela haurrak, gurasoak eta irakasleak bertan sartu-ateratzeko eta eskolak normaltasunez hasteko.

Ez Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, ez eta Donostiako Udalak, biak ala biak obren arduradunak, ez dute ahalegin nahikorik egin, eta ez dituzte beharrezko baliabideak jarri egoera bere onera ekartzeko eta ikasturtea behar den garaian hasteko (irailaren 7an). Emergentsia egoera ezarri bai, baina baliabide eta konponbide gehiago jartzeaz ez dugu ezer jakin denbora luzean.

Jakintza Ikastolako eskola publikoko komunitateko kideok (zuzendaritzako kideok, gurasoak, irakasleak, zerbitzuetako langileak...) neurriak exijitu dizkiegu Eusko Jaurlaritzari eta Donostiako Udalari hainbat arlotan, eskolak ahalik eta funtzionamendu normalena izan dezan:

- Baliabiden arloan: Ahalik eta baliabide gehien jartzeko eskatu dugu (baliabide teknikoak, giza baliabideak...), kalteak konpondu eta eskolako instalazioa bere onera itzultzeko.
- Segurtasunean: Eskola irekitzeko behar diren segurtasun neurriak hartzeko eskatu ditugu, eskola ezin delako ireki hurren, irakasleen eta eskolako beste erabiltzaileen segurtasuna erabat bermatu gabe.
- Osasunean: Osasun arloan ere baldintza egokiak izateko bermeak eskatu ditugu, eskolako

instalazioak erabiltzeak ez diolako inori osasun arazorik sortu edo handitu behar.

Arlo horietan neurriak eskatzeaz gain, ardurak ere eskatu ditugu, gertatutakoaren erantzulea nor den argitzeko.

Arlo horietan guztietan aurrerapenak izan ditugu; aurrerapen hauek Jakintza Ikastolako komunitatea osatzen dugun kideon presioaren ondorioz izan dira eta gaur egoera beste bat da. Eskatutako segurtasun eta osasuna bermatzeko neurriak betetzen diren heinean, irailak 14ean hasiko dugu ikasturtea 9etatik 3etara beheko eraikinean obrak dirauen bitartean, baina normaltasun osoz goiko eraikinean irailak 18tik aurrera, klaseak goiz eta arratsaldean izango baitira eta jangela zerbitzua ere egongo da.

Haurren, irakasleen eta eskolako beste erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko neurriak emango dizkigute. Presioa egiten jarraituko dugu, administrazio publikoek baliabide egokiak jartzeko, eta ardurak eskatzen ere jarraituko dugu, kalte honen arduraduna zein den argitu arte.

Azkenik, hezkuntza publikoaren aldeko apustua berresten dugu: auzoko eskola hurbilekoa nahi dugulako, denona eta denontzako eskola nahi dugulako, gizarte kohesioaren funtsezko elementua hezkuntza publikoa delako eta beste hamaika arrazoiengatik. Hezkuntza publikoarekin dugun konpromisoak eraman gaitu adierazpen hau egitera eta azken asteetan egin dugun bide hau elkarrekin egitera.

JAKINTZA IKASTOLA IKASTETXE PUBLIKOKO ORGANO GORENA

Antiguan, 2017ko irailaren 8an